

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3053

*436/2023 EBAZPENA, martxoaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez Teknikari Espezialista Profesional lanbide-taldeko Elektromedikuntzako Instalazioetako Teknikari kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko langile izateko hautaketa-probeta-rako epaimahai kalifikatzailea izendatu den.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin dira Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020/2021/2022an eta Egonkortzean iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1833/2022 Ebazpenaren bidez, Teknikari Espezialista Profesional lanbide-taldeko Elektromedikuntzako Instalazioetako Teknikari kategoriaren oinarri espezifikoak onartu ziren (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako).

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori Ebazpen honen eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek daukan egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

## ERANSKINA

## ELEKTROMEDIKUNTZAKO INSTALAZIOETAKO TEKNIKARI KATEGORIA

## Batzordeburua:

- Titularra: Eduardo Angulo Abaigar.
- Ordezkoa: Javier Hernando Ortega.

## Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Alfonso Tricio Orte.
- Ordezkoa: Francisco Alejandro Urien Ferrero.

## Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Alberto Uribarri Angoitia.
- Ordezkoa: Ignacio Brocal Hernandez.

## Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Iñigo Olagüe Bilbao.
- Ordezkoa: Igor Astarbe Escudero.

## Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Nestor Pierola Eguia.
- Ordezkoa: Igor Izaguirre Lachiondo.

## Idazkaria:

- Titularra: Juan Bautista Echevarria Sagastagoitia.
- Ordezkoa: Ana Patricia Pujana Uriarte.